

Aurkezpena

Gure proiektua minusbaliotasuna dituzten pertsonak integratzean datza , egokitutako diskoteka baten bidez. Horrela, mundu guztiak izango du aukera ondo pasatzeko eta esperientzia zoragarri eta ahaztezin batez gozatzeko; horretarako, areto guztiak egokitu ditugu haien beharretara. Aurrerago, enpresari taberna bat gehituko diogu; hau da, taberna izango da goizez eta diskoteka gauez.

Erantzukizun Mugatuko Sozietate bat sortzea erabaki dugu hainbat arrazoiengatik. Alde batetik, sozietate horretako erantzukizuna mugatua da, beraz gure enpresak galerak izatekotan ez ditugu gure ondasun edo ondare pertsonala galduko. Bestetik, gutxienezko kapitala 3.000€-koa denez, bideragarria da guretzat diru kantitate hau inbertitzea. Sozietate Anonimoa sortzeko aukerarik ez genuke izango, ekonomikoki ez litzatekeelako bideragarria izango guretzat.. Gainera, gure bazkide batek sozietatetik joatea erabakitzen badu, enpresakoek lehentasuna izango dugu geratzen den enpresaren zatia erosteko.

Negozio bat sortu dugu eta ondorengo zerbitzua ematen dugu gaueko ordutegiarekin, musika grabatua edo zuzenean entzuteko, abesteko, dantzatzeko eta edariak kontsumitzeko. Oro har, diskoteka batean edari alkoholduak baino ez dira ematen, baina gure kasuan ez, ezgaitasunak dituzten pertsona batzuk erreakzio txarra egiten dien medikamentu mota bat hartzen ari baitira. Aurrerago egunez taberna izango gara eta horregatik gosariak, bazkariak eta afariak izango ditugu.

Gure negozio hau Santutxun dago kokatuta, Karmelo kalean, metro irteeraren alboan; horrela lokala aurkitzeko modua errazagoa izango da. Santutxun denda ugari daude, eta bertara iristeko oso erraza da, metro irteerak, autobus eta taxi geltokiak baitaude. Gainera Alde Zaharretik 5 minutura dago.

Gure diskotekak beste batzuekin alderatuz, hainbat ezaugarri ditu, ezinduentzako egokitapena adibidez. Beste enprekin alderatuta, desgaitasunen bat jasaten duten pertsona guztientzako sarbidea askoz errazagoa eskaintzen dugu. Bestalde, sarrera prezio merkeagoak eskaintzen ditugu, haien eskura egon daitezen eta beste edozeinek bezala goza ditzan. Era berean, gure lokala gainontzekoekin alderatuta askoz handiagoa da, eta jende gehiago sartzen da, ondo pasatzeko eta jende gehiagorekin elkarreragiteko dituen hainbat gela direla eta. Baina gure enpresan nabarmentzen den beste ezaugarri bat alkohola ez saltzea da, beraz, ez dugu inolako salmenta lizentziarik eskatu behar eta denek gizarteratu ahal izango dute gorputzari eragiten dion estimulu motarik gabe.

Gure enpresak integrazioa eta erosotasuna lantzen ditu desgaitasuna duten pertsonak gizarretatik eta gartzetatik baztertzea saihesteko. Jai-giroaz goza dezaten.